

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

OSASUN SAILA

601

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko dekretuarena, «351/2012 Dekretua, abenduaren 31koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko Administrazio Kontseiluko kide batzuk aldatzen dituen».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Aipatu bezalako hutsak atzeman dira honako dekretu honetan: 351/2012 Dekretua, abenduaren 31koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko Administrazio Kontseiluko kide batzuk aldatzen dituen, zeina 2013ko urtarrilaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (2. zk.) argitaratu baitzen. Eta jarraian zuzendu egiten dira hutsok:

2013/41 (2/1) orrialdean, 2. artikuluari dagokionean.

Honela dio:

«Lehenengo kontseilukidea: Pedro María Hernando Arranz jauna, Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko sailburuordea, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren proposamenez».

Baina honela esan behar du:

«Lehenengo kontseilukidea: Guillermo Viñegra García jauna, Osasuneko sailburuordea, Osasuneko sailburuaren proposamenez».

2013/41 (2/2) orrialdean, 2. artikuluari dagokionean.

Honela dio:

«Lehenengo kontseilukidea: Guillermo Viñegra García jauna, Osasuneko sailburuordea, Osasuneko sailburuaren proposamenez».

Baina honela esan behar du:

«Bigarren kontseilukidea: Pedro María Hernando Arranz jauna, Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko sailburuordea, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren proposamenez».